# Heriotzaz, berbakeriaz eta lurraren defentsaz diharduen olerki bilduma

Convertido de web en PDF a https://www.htmlapdf.com con el api html a pdf



Rafa Ugalde.

## Rafa Ugaldek bere lehen poesia liburua atera du, iaz Blas de Otero-Bilbo Uria Nazioarteko X. Poesia Lehiaketa irabazitakoa

Convertido de web en PDF a https://www.htmlapdf.com con el api html a pdf



ARGUTXI .
4 julio 2018, 10:52

Rafa Ugalde (Zornotza, 1961) ez da aurpegi berria euskal letren baratzean, baditu narrazio batzuk publikatuak, baina oraingoan bere lehen poesia liburuarekin agertu da plazara. Iaz Blas de Otero-Bilbo Uria Nazioarteko X. Poesia Lehiaketa irabazitako bilduma, hain zuzen ere: 'Hondar aleak'.

Liburua Erein etxeak eman du argitara. Bizkaitar idazleak atzoko aurkezpen ekitaldian agertu zuenez, heriotza da olerkiotako gai nagusietako bat. Behin, lagun batek hauxe esan omen zion Ugalderi: «Berrogeita hamar urtetik gora hiltzen hasten gozak». Hori esan zion hiltzeko zegoen adiskide bati bisita egitera zihoazela. Esaldia iltzatuta gelditu zitzaion idazleari eta liburuaren kontrazalera ekarri du.

Ugaldek hau idatzi du kontrazalerako, aurkezpen-testu gisa: «Seguruenik arrazoia zuen lagunak; beraz, ni hiltzen hasia dagoen gizonezkoa naiz. Hori horrela, esku artean dituzun 'Hondar aleak' hiltzen hasia den gizonezko baten bizimoduaren bizitza-atalak dira, aleak, sentipen-aleak».

Hamabost urtetan zehar idatzitako olerkiak dira. Orain hogei bat urte hasi zen horietako batzuk idazten, eta azkenekoak orain bost bat urtekoak dira. Liburuaren bukaera aldera aitari buruzko bi olerki irakur daitezke, hil berritan idatziak. Besteak beste, idazleak aitortzen du bere garaian aita ulertu ez izana. Honela bukatzen da poema: «Aurkitu zaitudanean, / joan

Convertido de web en PDF a https://www.htmlapdf.com con el api html a pdf

egin zara... / ...aita... / Mila esker itxaroteagatik».

Ugaldek uste du «heriotzaren aurrean, adinaren poderioz ikasi egiten dela. Baretasuna lortzea litzateke helburua. Poema batean diodan bezala, hondartza bezain bare bihurtzea».

Denboraren igaroa da liburuko beste ardatzetako bat. «Ez dut berriro hogei urte eduki nahi, baina denbora astiroago joango balitz!», adierazi zuen kazetarien aurrean.

«Ni ez naiz hemengoa», dio Ugaldek liburuko lehen olerkian bukaera aldera. Eta bigarren olerkiaren izenburua ere hori bera da: 'Ni ez naiz hemengoa'. Batetik, Joseba Sarrionandiari egindako omenaldia izango litzateke -Ugaldek aitortu du poeta hori oso gustukoa duela-. Bestetik, esamolde horren bidez egungo zibilizazioaren alde batzuk gaitzesten ditu zornotzar idazleak. «Insatisfakzioa adierazten dut liburuko zenbait poematan; alegia, zertara etorri naizen, zer egiten dudan hemen».

Egungo «berbakeria» salatzen du Ugaldek, eta aldi berean lurraren aldarrikapena egiten. 'Terrorista' izenburuko olerkia honela amaitzen da: «Bortitza izango naiz neure buruaren defentsan, / eta terrorista izendatuko nauzu».

---

**TEMAS** Euskera

Recibe nuestras newsletters en tu email Apúntate

Convertido de web en PDF a https://www.htmlapdf.com con el api html a pdf

## Lo + leído

El Diario Vasco

Cultura

Top 50

1 «De Dylan para abajo, a todos nos ha pasado alguna vez algo sobre el escenario»

2 Dudas sobre el tema que ganó Eurovisión

3 Laborde: «Este proyecto es el sueño de cualquier restaurador»

4 Así han cambiado los protagonistas de 'Compañeros'

5 Las feministas rusas 'Pussy Riot' se suman al cartel del Donostia Festibala

Convertido de web en PDF a https://www.htmlapdf.com con el api html a pdf

Convertido de web en PDF a https://www.htmlapdf.com con el api html a pdf

Convertido de web en PDF a https://www.htmlapdf.com con el api html a pdf

Comentarios

## Patrocinada

## Noticias relacionadas

'Euskoterapia' umore saioa egingo dute ETB2n

'Luis eta estralurtarrak' filma ikusgai dago

Sestaoko Bandera eta pilota Barañaindik, larunbatean

CONTENIDO PATROCINADO

Convertido de web en PDF a https://www.htmlapdf.com con el api html a pdf

## Fotos



### Maule-Lextarretik Getxora



### Emakume Aizkolariek txapelketa egin dute Usurbilen



### Gure Zirkua deleita en Amezketa



Convertido de web en PDF a https://www.htmlapdf.com con el api html a pdf



Las fotos de Shakira en concierto en el BEC

## Vídeos




EuskarAbenturaren aurreneko etapako irudiak




Benicio del Toro vuelve con 'Sicario: El día del soldado'




Convertido de web en PDF a https://www.htmlapdf.com con el api html a pdf



Los Javis presentan la 2ª temporada de 'Paquita Salas'




Estrenos de cine para el viernes 29 de junio

EL DIARIO VASCO

© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A. Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018

vocento



Convertido de web en PDF a https://www.htmlapdf.com con el api html a pdf